

KONTROL MOZIOA

IGAROBIDEAREN INFORMAZIO-PROZESUA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko urtarrilaren 14an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, aintzat hartuz gero erakundeek herritarren dirua kudeatzen dugula, herri-administrazio batek bermatu beharreko gutxieneko baldintza da proiektu publikoen inguruko informazioa zuzenean helaraztea herritarrei, orain arte Donostiako Udalak egiten ziharduen bezala, edozein zela ere obraren eskumeneko erakundea. Are gehiago, Topo-igarobidearen dimentsioko proiektu eta obra batez ari garenean; are gehiago gardentasun eza dagoenean eta metro-proiektua obskurantista izatearen ospea hartu duenean eta are gehiago, milaka donostiar kalera atera direnean administrazioei proiektu honen inguruko gutxieneko eztabaida eta informazioa aldarrikatzeko.

Udal Gobernuak 2015eko urriko batzordean eta udalbatzaren osoko bilkuran konpromisoa hartu zuen donostiarren aurrean informazio prozesu bat gauzatzeko; hain zuzen, 2016rako Aurrekontu Proiektuan kontu-sail bat ezarri zuen horretarako. Topo-obren Batzorde Ez-Iraunkorrean, prozesu honen inguruan galdetuta, erantzun zitzaigun oraindik ez zirela koordinatu Eusko Jaurlaritzaren eta udal-departamentuak informazio-batzarrak egiteko eta hilabete honetako kontrol batzordean, ordea, erantzun zaigu “oraindik ez dela momentua” proiektu honetaz herritarrek informatzeko.

Kezkagarria iruditzen zaigu Udal Gobernuak ez betetzea Udalbatzak publikoki hartutako konpromisoa, eta, era berean, beldur gara gardentasuna eta marketing-a nahasten ari ote den Udal Gobernuaren proiektu honetan. Zeren zain dago, beraz, informatzeko? Igarobidearen obrak esleitu eta lehen hondea-makinak lanean hastearen zain?

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala hartutako konpromisoak eta abia dezala Topo-igarobidearen inguruan donostiarrentzako gardentasun

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

eta informazio prozesu ireki bat, bereziki aintzat hartutako lanen ondorioak paira ditzaketen bizilagun, dendari eta kolektiboak kontuan izanik.

Donostian, 2016eko urtarrilaren 22an.

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia